

Irakurtzeko erraza



Errenteriako Klima Aldaketari Egokitzeko Plana

Diagnostikoa

ERRENTERRIAKO KLIMA ALDAKETARI EGOKITZEKO PLANA

Errenteriako udaletxeak klima aldaketa ekiditzeko eta honi egokitzeko lan egiten du, garapen iraunkorrarekin daukan konpromisua baieztatuz.

Zer da klima aldaketa?

KLIMA ALDAKETA giza-kiak modu zuzen edo zeharkako batean eragindako klimaren batez besteko egoera aldaketa da.



Klima-sistemaren beroketa errealitatea da. 1950. urteaz geroztik behatutako aldaketek ez dute aurrekaririk eta sisteman giza eragina argia da.

EGOKITZAPENAREN bidez, giza eta natura sistemak moldaketa bilatzen dugu, hauek daukaten klima aldaketari erantzuteko gaitasuna hobetzeko (bero uhinak, uholdeak, eta itsas mailaren igoera, besteak beste).

Zer da klima aldaketari egokitzea?



Errenteriako udalerrriak iraunkortasunaren alorrean historia luzea du. Egokitzapen Plan hau gauzatu aurretik, Errenteriako udalerrriak klima aldaketaren ahultasun egoerari buruzko analisia burutu du, udalerrriaren ordezkari tekniko eta politikoen parte hartzearekin.

Zelakoa izango da etorkizuneko klima Erreterian?

Temperatura



- ♦ 2100. urtean, Erreteriarako gutxieneko temperatura 3,39°C altuagoa izan daiteke 1971-2000 aldiarekin alderatua!
- ♦ Udako egun gehiago espero dira, muturreko tenperatura maximoekin.
- Bero-bolada eta hotz-bolada gertakizunen gehikuntza espero da, berealdiko klima baterantz abiatuz.

Prezipitazioak



- ♦ Prezipitazioen murrizketa espero da.
- ♦ Prezipitazio baxu eta ertainen egunak murriztea espero da.

Itsas mailaren igoera



- ♦ Udalerriaren iparraldeko auzoek kalterik handienak jasoko lituzkete, portuko azpiegiturak barne.

Lur-irristatzeen arriskua



- ♦ Lur-irristatze arriskurik handiena duten eremuak udalerriaren hegoaldean daude, Aiako Harria Parke Naturalaren inguruan.


Zein da Errenteriaren gaur eguneko egoera?

Udalerrria klima aldaketara nola prestatuta dagoen jakiteko, egungo lehenetasunezko alorren egoera aztertu da.

Analisi hau, lurraldearen ezaugarri klimatikoak, sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak kontuan hartuz burutu da.

1

Osasuna



- ◆ Errenterian osasun zentroetara joateko erreztasuna dago.
- ◆ Herritarren segurtasuna bermatzeko baliabide egokiak daude.
- ◆ Errenterian ez dago hirugarren adineko pertsona askorik.
- ◆ Biztanleri ahulenentzat dauden zerbitzuak hobe daitezke.

2

Kanpoko hirigintza (Azpiegiturak)



- ◆ Errenterian, herri azpiegiturez ordezkaturako lurzoru natural portzentai altua dago
- ◆ Ekintzak gaur egun martxan jartzeak etorkizunean kostuak ekiditu ditzake.

3

Barne hirigintza (Eraikuntza eta ekipamenduak)



- ◆ Errenterian birgaitu beharreko eraikuntza asko daude.

- ◆ Lehentasunezko alorra da, bere kalitate zein kantitate egokiak bermatu behar direlako klima berriaren aurrean.
- ◆ Ibaien ur kalitatea hobetzeko lan egiten jarraitu behar da.
- ◆ Lurpeko urak kaltetu ditzaketen lur eremu kutsatuak daude.



- ◆ Errenterian, parke, lorategi, gune berde eta basogintzarako erabiltzen diren eremu asko daude.
- ◆ Udaletxeak baso-babespena bermatzeko aurreikusitako plangintzarekin jarraitu behar du.
- ◆ Biodibertsitate plangintza bat edukitzea abantaila bat da alor honentzat, aldatzen dagoen klima bati egokitzeko oinarria baita.



ERRETERIAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA

Laguntzaileak:



Asistentzi teknikoa:

